



**Euskal
Eredua**

Ongizate Hitzarmena

Konponbide berriak

ehbildu

E

torkizunari bermeeekin aurre egiteko ezinbesteko baldintza gisa, premiazkoa da 2008ko krisi ekonomiko-finantzarioaz geroztik gertatzen ari diren bi joera iraultzea: zerbitzu publikoen degradazioa eta desberdintasun sozialen areagotzea. Hain zuzen ere, erronka globalei aurre egiteko gai izango den herri-proiektuaren gutxieneko baldintzak bete daitezzen, beharrezkoa da ongizatearen oinarri materialak bermatzea euskal gizarte osoari. Horregatik diogu, bizitzaren garestitzeak dakartzan desberdintasun sozialen sakontzearen aurrean, premiazkoa dela gizarte-itun handi bat osatzea, euskal gizartearen sostengatzeko eta etorkizunari ahalik eta berme sendoenekin heltzeko, gizarte-hausturarik gabe.

Itun sozial handi bat proposatzen dugu, estatu senekoa: ongizate-itun bat, ongizatearen oinarri materialak bermatzera bideratutako bost neurriren bueltan artikulatua, eta beste bost neurri jasoko dituen aberastasunaren banaketa sakon baterako.

Ongizatea bermatu

1. Energia prezio justuan

Herritarrei bermatuko zaie energia prezio justuan jasoko dutela, eta bertako PYMEei eta autonomoei energia prezio onargarrietan jasoko dutela. Horretarako, energia-merkatuan esku hartzea bultzatuko da, behar adinako eraldaketak gauzatu daitezten enpresa energetiko handiek osatzen duten oligopolioarekin amaitzeko.

Horretarako:

Lehenengo eta behin, enpresa energetikoei ezarriko zaien tasaren kudeaketa (Europar Batzordeak iragarri duena) bertako instituzioen esku egongo da. Euskal Autonomia Erkidegoak zein Nafarroako Foru Erkidegoak beren eskumen fiskalen baitan jasoko dute enpresa energetikoen irabaziak zergapetzeko aukera. Hortik eratortzen den diru-bilketa herritarren faktura energetikoak merkatzera bideratuko da.

Horri begira, epe laburreko neurri gisa, 40.000 euro arteko errentei energia bono progresibo batekin lagunduko zaie, eta PYMEei eta autonomoei zuzeneko laguntzekin. Izan ere, euskal gobernuek bermatu behar dute herritarrek eta bertako enpresek energia prezio justuetan jasotzen dutela.

Ongizate energetikoa bermatze aldera, etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko, eta birgaitze energetikoa eta autokontsumoa sustatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak jarriko dira.

Bestetik, energia sektorea oligopolioaren eskuetatik ateratzeko egiturazko neurriak hartzeko ordua iritsi da: Energia berriztagarrien sorkuntza-bitartekoen demokratizazioa posible da eta errealitate bilakatu behar da, eskala guztietan. Are, energia berriztagarrien azpiegiturak kontrol publikoa ziurtatzen duen jabetza-eredu publiko-komunitarioaren arabera garatuko dira, bermatuz salmenta prezioa sorkuntza kostutik gertu dagoela.

2. Soldaten eta pentsioen igoera

Soldatak eta pentsioak igoko dira, KPIaren igoerak dakarren desberdintasun sozia-
len areagotzea eten eta 2008ko krisiaz geroztik gertatzen ari den lan errentetatik
kapital errentetarako joera itzultzeko helburuz.

Horretarako:

Akordio Interprofesionalaren bidea jorratuko da negoziazio kolektiboa eta akor-
dio territorialak bultzatuz, KPIaren igoeraren ondoriozko soldaten devaluazioari
buelta emateko xedez. Zentzu horretan, ezinbestekoa da EAEko eta NFEko gober-
nuen konpromiso politiko publikoa, inplikazio zuzena eta jarrera proaktiboa, eragi-
le ekonomiko eta sindikalen arteko akordioa sustatzeko eta orain artean erakun-
de enpresarialek aberastasunaren banaketaren eztabaidari jarri dioten betoa altxa
dadin.

KPIaren araberako pentsioen balio-handitzea eta 1.080 euroko pentsio minimoa.

3. Etxebizitza eskubidea

Egungo krisiaren testuinguruan inoiz baino onartezinagoa da etxebizitza negozio
gisa ulertzea, modu aktiboan zein pasiboan. Etxebizitza eskubide gisa uler dadin
neurri efektiboak hartuko dira, higiezinaren merkatuan esku hartuz.

Horretarako:

Jabego publikoko alokairuko etxebizitzaren parkea handituko da. Bi tresna nagusi-
ren bidez: babes publikoko etxebizitzak lehentasunez erosiz, eta etxebizitza hutsak
alokairu sozialera bideratuz. Bankuei ezarriko zaien prestazio patrimoniala neurri
hau finantzatzera bideratuko da. Prestazio honen kudeaketak euskal instituzioen
esku egon behar du.

Alokairuko etxebizitzaren prezioa mugatuko da. Bi helburu nagusirekin: hipoteka bat
eskuratu ezin duten familiei alokairu duin eta eskuragarria eskaintzea, eta gazteen
emantzipazioa erraztea.

Hipoteken igoerari sabaia ezarriko zaio. Euribor indizea zenbaki negatiboetan egon
denean banketxeek blindaje bat asmatu badute, orain ez da onargarria neurrigabe-
ko mozkinak biltzea.

Etxebizitza alternatibarik gabeko kaleratzeak debekatuko dira, Covid-19aren pandemian egin zen bezala.

4. Zerbitzu publiko sendoak

Osasun sistema publikoa indartzeko egiturazko neurriak hartuko dira urgenteki, sistema publikoa huts egiten ari baita oinarritik bertatik (lehen arreta zerbitzua). Ondorioz, sistema dual bat sortzen ari da. Osakidetza eta Osasunbidea indartsu bat bermatzeko egiturazko neurriak hartuko dira.

Horretarako:

Behin-behinekotasuna %8ra jaisteko talka-plana (langileak lanpostuetan egonkortuz eta kontratazio eredua aldatuz), kategoria guztietako profesionalen ratioak ezartzea, behar ditugun profesionalak izateko formakuntza moduak eta bitartekoak bermatzea eta emergentziak bere osotasunean publikatzea.

Hezkuntzarako eskubide efektiboa aukera berdintasunez eta ekitatez gauzatu ahal izateko ikasturtearen garestitzeari aurre egiteko neurriak hartuko dira. Horrekin batera, hezkuntza segregazioari aurre egiteko eta doakotasun erreala bultzatzeko neurriak hartuko dira.

Horretarako:

Egoera zaurgarrian dauden familien kasuan, gutxienez, 24.000 eurotik beherako errententzat 0-3 zerbitzua doakoa izango da, eta gainontzeko hezkuntza etapetan jantoki, ikas-materialen eta garraiorako bekak eta laguntzak handituko dira, errenta maila horretan, behintzat, doakotasuna bermatuz.

Horrekin batera, EAEn Hezkuntza lege berria onartuko da, Euskal Hezkuntza Sistema Propiorako trantsizioa egiteko atea irekiz. Lege horrek Hezkuntza Zerbitzu Publikoa arautuko du, parte diren ikastetxeak eskubidez eta betebeharez berdinduz. Hala, kontzertazio unibertsalarekin bukatuko da, doakotasun erreala bertan bertan da eta segregazioaren kontrako neurri efektiboak hartuko dira. Nafarroan datozen hilabeteetan eztabaida honi atea ireki eta, norabide berean, segregazioari eta kontzertazio unibertsalari atea ixteko neurriak hartuko dira.

Gizarte zerbitzuak sendotzeko egiturazko neurriak hartuko dira, ohiko zaintza-sistemen gainbehera agerian geratu baita; erakundeek ez diete beharrezkoa den eran-

tzunik ematen euskal gizartean sortzen ari diren zaintza beharrei. Horren adibide argi eta gordinena bihurtu dira Adinekoen Egoitza Zentroak.

Horretarako:

Adineko pertsonentzako egoitza zentroetako baldintza materialak, funtzionalak zein langileei dagozkionak hobetuko dira, besteak beste, egoiliar bakoitzeko, eguneko, 120 minutuko arreta bermatuz.

Gizarte Zerbitzuak desmerkantilizatze eta zaintza sektoreko lan baldintzak duintzeko funtsa sortuko da, kudeaketa publiko zuzenari lotutako zerbitzuen kopurua handitu, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenaren itun sozialaren erregimena arautu eta zaintza sektoreko lan baldintzak hobetzeko.

5. Garraio publiko kolektiboaren doakotasunerantz

Energia-krisian gaudelarik, garraio publikoa indartuko da ahalik eta bidaiari gehien erakartze aldera, mugikortasunari soluzio ekonomikoa eskaini eta erregai fosiletan oinarritutako ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko helburuz.

Garraio publikoaren kalitatea indartzearekin batera (ordutegiak, maiztasunak, ibilgailu-floten berritzea eta abar), horretarako:

12 urtetik beherako umeentzat doakoa izango da garraio publikoa, erronka demografikoan euskal familiak laguntzeko.

Adin horretatik gorako ikasle guztientzat zein diru sarrerak bermatzeko laguntzen hartzaileentzat eta langabetuentzat ere doakoa izango da garraio publikoa, garraio publikoaren behar berezia duten kolektibo zaurgarriak babestuz.

Gainerako herritarrentzat %80ko hobariak ezarriko dira, garraio bide guztietarako, egungo garraio-txartelekin batera, egun dauden deskontuak handituz eta egungo egoerari doitu.

Aberastasuna banatu

6. Erreforma fiskala

Erreforma fiskala egingo da, aberastasuna birbanatzeko tresna izango den zerga sistema justu eta progresiboa sortuz ; Europako batz-besteko presio fiskalera hurbilduko gaituena, gehiago duenari gehiago ordainaraziko diona eta enpresen mozkinak zergapetuko dituen.

Horretarako, urgentziaz:

Sozietateen gaineko Zergan, enpresek dituzten etekinak kontabilitate emaitzen arabera zergapetuko dira, tipo desberdinak ezarriz. Gutxieneko tipo efektiboa %15ekoa izango da. Kenkariak errebisatuko dira. Sozietateen gaineko zerga hau disuasio neurria ere bada enpresek produktu energetikoen eta lehengaien igoera produktuen prezioetan islatzeko eta are irabazi marjinak handitzeko izan dezaketen joeraren aurrean.

Pertsona Fisikoen Errenten gaineko Zergan, neurri ezberdinak:

- » Lan eta kapital errentak tipo bakarrean batzeko urratsak eman.
- » Kenkariak errebisatuko dira progresibitate mantentze aldera, errenta altuei murriztuz eta baxuei handituz, edo itzulgarri bihurtuz.
- » Norabide horretan, eta eguneroko bizitzaren garestitzeak sarrera murriztenak dituzten familiei eragiten dien egoerari aurre egiteko, 1.200 euroko diru laguntza ezarriko zaie 20.000 euro baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten pertsoneri.
- » EAEn egin berri den deflaktazioa zerga jaitsiera hutsa da, eskuinaren errezeta. Deflaktazioak doiketa tekniko soila izan beharko luke, baina gurean egin denak, besteak beste, errenta handiko sarrerak dituztenei zerga beherakada ekarriko die. Ondorioz, lan errentetan, 60.000 eurotik gorako sarrerak dituztenei erre-kargu progresibo bat ezarriko zaie; eta kapital errentetan, 15.000 euroko tartetik aurrera, gauza bera.

Ondare Zergaren ordeztasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga ezarriko da, zergadunen aberastasun osoa zergapetzeko. 2011-15 legegintzaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak indarrean jarritakoa hartuko da oinarri.

Zerga guztien eskumenak EAEko eta NFEko ogasunen esku egongo dira, krisi ekonomikoari aurre egiteko behar diren tresna fiskal guztiak eskura izan ditzagun.

7. Enpresen irabazien banaketa

Ziurgabetasun ekonomikoa hain indartsua den garai honetan enpresek ez dituzte dibidenduak banatuko. Enpresek sortzen duten aberastasun guztia enpresan bertan geldituko da eta enpresa eta sindikatuen arteko negoziazioaren bidez erabakiko da zertara bideratzen diren.

Horretarako:

Akordio Interprofesionala sustatuko da enpresen irabazien banaketa arduratsu eta eraginkor baterako. Irabaziok langileen soldata-baldintzak hobetzera eta enpresa bertako inbertsio produktibora bideratuko dira.

Euskal Enpresa Ereduaren aldeko akordio politikoa osatuko da, EAEko zein NFEko parlamentuetan jada onartuak diren legez besteko proposamenetan oinarrituz. Ondorioz, honako ezaugarriak betetzen dituen enpresa eredu beharrezko modu guztietan sustatuko da:

- » Enpresa eredu ekonomikoki iraunkorra, kanpoko kapitalari saltzen ez dena.
- » Langileen parte-hartzea sustatzen duena: kudeaketan, irabazien banaketan eta kapitalean.
- » Euskal Herriaren garapen endogenoarekin konprometitzen dena.

8. Lanbidearteko Gutxieneko Soldata

Bizi-maila duinerako egokia den Lanbidearteko Gutxieneko Soldata finkatuko da, euskal errealitate sozioekonomikoaren arabera: 1.400 euro. Izan ere, gutxieneko erreferentzia oinarri duten soldatak dituzten pertsonak baitira pertsona ahulenak; ahultasun horretan genero-arrakala nabarmena ikusten da, lanpostu prekarioenak emakumeek betetzen dituztelako gehienbat.

Horretarako:

EAE eta NFEko Gobernuak negoziazio mahai bat irekiko dute erakunde sindikal eta enpresarialekin halako gutxieneko soldata bat finkatzeko helburuz.

9. Inbertsio Politika Berria

Inbertsio publikoaren lehentasunak birdefinituko dira. Garai ekonomiko berri batean sartu gara zeinetan baliabideak urriak izango diren. Zertan inbertitzen den erabakitzen denean zertan inbertitzeari uzten zaion erabakitzen delako. Herritarren segurtasuna bermatzeko ezinbestekoa den inbertsioa lehenetsiko da, errendimendu soziala ondo justifikatuz.

Horretarako, honako lehentasunak finkatuko dira:

- » Elikadura sistema
- » Larrialdi klimatikoaren aurreko adaptazio eta mitigazio politikak
- » Industrian egin beharreko eraldaketak
- » Trantsizio energetikoa
- » Zerbitzu publikoak

Euskal Y"-aren eraikuntzan oraindik 5.000 milioi inguru falta dira gastatzeko, gainegitura eta hiriburuetako soluzioak barne. AHTak EAetik hegoaldera zein iparraldera merkantzien garraiorako balioko ez duela ofizialki aitortu denez gero, lehentasunak ohiko trenbidearen modernizazioak behar du, beharrezkoak diren kortak eta bikoizketak eginez, beti ere bidaiarien zein merkantzien tren iberiko zein nazioartekoaren garraioa ahalbidetuz.

Honako azpiegiturei berehalako moratoria ezarriko zaie:

- » AHTaren Bilboaldeko Hego Tren Saihesbidea (VSF): 600 milioi euro.
- » AHTaren Burgos-Gasteiz: 1.200 milioi euro. EAEko zatia: 600 milioi euro.
- » AHTaren Iruñea-Ezkio/Itsaso: 1.700 milioi euro.
- » AHTaren Iruñea-Castejón: 1.600 milioi euro.
- » Lamiakoko urazpiko autobidea (subflubiala): 400 milioi euro.

» Supersurraren 3. fasea: 300 milioi euro.

Guztira: 5.200 milioi euro.

10. Gutxieneko diru sarrerak bermatzeko mekanismo berriak

Gutxieneko diru sarrerak bermatzeko mekanismo berriak jarriko dira martxan, oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituzten pertsonen kopurua gora doalako, baita haur pobrezia zein oinordetzan jasotzen pobrezia, eta seme-alabak izatea pobrezia faktorea dela. Etorkizuna haustura sozialik gabekoa izan dadin babes kolektiborako mekanismoen birdefinizioa behar da.

Horretarako:

Diru sarrerak bermatu eta inklusiorako sistema erreformatuko da, hamarkada baterako babes kolektiboaren oinarriak ezartzen ari garela kontuan hartuz. Aukera hau eskubideak zabaltu, gehiago eta hobeto babestu, bizitza duinak bermatu eta oinarrizko beharrak asetzeko onartua dugun eskubidea bermatuko duen sistema bat diseinatzeko baliatuko da.

Haur pobrezia murriztu eta pobrezia oinordetza eteteko, haurren hazierarako 200€-ko prestazio unibertsala ezarriko da, haurrek 18 urte izan bitarte hilero jasoko dena.